



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Bizitza ezkutuan sartu da eskolako zirrikituetatik

Parisen lapurrak sartu dira, ama!». «Zer gertatu da, bada?», amak. «Disneyland Paris itxi egin dute eta trenak ez dabilta». Ganix eta 5 urteko bere lagunak ondorio horretara iritsi dira, nonbait, ikastolan. Astelehenean, eskolan berriro topo egin dutenean, asteburuan edonon ikusi dituzten irudiak eta helduei entzun dizkietenak izango zituzten hizketagai. Bakoitzak ikusitakoa eta entzundakoa azaldu, eta denen artean hausnartzen arituko ziren zer arraio gertatu den Parisen hain neurri gogorak hartu behar izateko.

Ganix eta bere lagunak, haur eta gazte guztiek bezala, ezagutzeko irrikaz dauden munduaren gainean beren teoria interpretatiboak egiten dituzte. Hedabideak dira, askotan, munduari begiratze-ko eskuerara duten leihoa. Handik zehar begiratu, eta dituzten bitartekoekin eta erreferentziekin saiatu behar dute beren begien aurrean dutena interpretatzen eta ulertzen. Ondorioz, askotan us-te ez badugu ere, haurrek eta gazteek badute munduaren interpretazioa: beraiena eta beraien neurrira egina, noski. Bitartean, askotan ere, eskolak ateak eta leihoak itxita ditu munduan eta bizitzan benetan gertatzen denaren aurrean. Eskolan ez dago lekuri ez denborarik gertaera horientzat. Ezta etxean ere. Sarriegi pentsa dezakegu txikiegiak direla eta ez dutela ulertuko, edo, okerragoa dena, ez direla ohartu ere egiten. Baina nork egin diezaioke ihes gaur egun hedabideen zaparradari oso txikia izanagatik ere?

Oso zaila da haur baten aurrean jarri eta bere buru txikian sortzen diren galdera eta ulertezin guzti-guztiei erantzutea. Are gehiago, mundua, gure begietara ere, esplika ezin bihurtu denean, jaso ditugun gaiztoen eta onen definizioek ez digutenean balio mundua esplikatzeke. Euskaldunok ere badugu gure gatazka partikularra alboan ditugun bi estatuekin. Etxe askotan kartzelaren eta erbestearen egunerokoa bizi behar dute. Eta etxe horietako neska-mutilak heziguneetan ditugu gurekin. Haietako askoren astelehenak ere ez di-

ra izaten errazak, asteburuan milaka kilometro egin ondoren, kartzelan egon ondoren, maite duten hura han utzita berriro itzuli behar izan dutenean. Nola erantzun begiradarekin egindako “zer-gatik dago kartzelan?” galdera isilari, ipuinetatik eta filmetatik jaso ditugun onen eta gaiztoen ereduaren kargarekin?

Bizitza, bere aurpegi onarekin eta txarrenarekin gehienetan, eskolako arrakaletatik sartzen da ezkutuan. Izan ere, bizitza ez da beti polita eta erraza. Zenbat saiatzen ote gara, orduan, neska-mutilak bizitza zail bihurtzen denerako prestatzen, estrategiez hornitzen... Nahiko genuke mundua bestelakoa balitz, errazagoa, samurragoa, baina oraingoz gero eta gehiago ari da urruntzen desio horretatik. Bien bitartean, neska-mutilak munduan integratu ahal izateko hura ulertzeko lanean ari dira, une oro. Saia gaitezke haur eta gazteak kultura jabe

gisa ikusten, eta haiekin hitz egiten mundu honek dituen miseriez, erantzunik gabe geratzen garenean umiltasunez ala dela aitortuz. Hori litzateke bidea, akaso, neska-mutilek sentitzeko maite dituzten pertsonak mundua esplikatzeke argudio ulerkorrik gabe gertatu badira, munduan zerbait aldatzeko premia izango dela. Ohartuko bagina aukera ematen diegunean haurrak gai direla erronka asko gainditzeko, mundua pixka bat aldatzen ari dela sentituko dugu geuk geronek.

Zer neurriko katastrofea gerta liteke 5 urteko haur baten begietara onek beti gaiztoak garaitzen dituzten eta bizitza ia perfektua den Disneyland Paris bera ixteko? Ez dakite Siria non dagoen, zer den Estatu Islamikoa, ezta zeintzuk diren mundua dardarazten ari diren interes geopolitikoak ere. Baina beren imajinario pertsonaia beldurgarrienak, makurrenak eta gaiztoenak behar dute izan argiak itzali dituztenak... lapurrak! •



Zer gertatzen ari da munduan haurren begietara?

Olivier MORIN | AFP